

Apirilaren 23ko 4/1986 LEGEA, Euskadiko Autonomia-Elkartearen Estatistikari buruzkoa. (Hutsen zuzenketa, EHAA 211 ZK., 1986-10-29) (Hutsen zuzenketa, EHAA 234 ZK., 1986-11-27)

ZIOEN ADIERAZPENA

1.– LEGEAREN AZALPENA

Estatistika berebiziko garrantzizko gaia dugu, erabiltzen deneko alorra dena dela, eragin nahi zaion gaiaren benetako egoera ezagutzeko eta eragin hori neurtzeko lanabes baliotsua bait-da. Hala ere, Herri-Arduralaritzaren ihardunari buruzkoetan garrantzi hori bereziki areagotzen da, horrek gizarte-bizitzaren alderdi berezietan ihardun behar bait-du, gizarte-bizitza horrek orohar dituen zuduei kontu eginaz eta horren baitan sortutako bateango beharrei erantzunaz.

Autonomia-Estatutoaren 10.37 atalak bakarreango agintea ematen dio Euskadiko Autonomia-Elkarteari bere berenezko helburu eta agintepidetarako Euskal Herriko Estatistikaren alorrean. Aintzin-irizpide horretatik abiatuta, Lege honetan Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika araupeketaren gai agertzen da, Elkartearen erabateko menpeko denez.

Hala ere, ezein Herri-Izaikik, eman zaizkion ahalmenak erakuntza zehatz baten bidez egiteratu behar ditu. Beraz, Autonomia-Elkarteak Estatistikaren alorrean dituen agintepideen egiteraketan bertako zein Ihardutze-Sail eta Herri-Izaiki arituko diren zehaztu beharra dago, hori egitea ere Elkarteak bakarrean duen bere burua eratzeko aginteari dagokiola.

Zera gainera, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren eta horren mugarteko Kondaira-Lurralde eta gainontzeko Herri-Izaikien elkar-atxikipena egitea bidezko gertatzen da, Estadistika-lana eta lan horretaz baliatzea ahalik eta gehien hobetzeko xedez; elkar-atxikipen horren bidez kotasuna Autonomia-Estatutoak berak dakarrenari ezezik, Autonomia-Elkarte Oso-rako Erakundeen eta Kondaira-Lurraldetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 9garren atalak agintzen duenari ere ba dario.

Hoiegatik guztiegatik, honako hauek araupetzea du helburu Lege honek:

- a) Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estadistika, bere berenezko helburu eta agintepidetarako; I Idazpuru ari da horretaz.
- b) Estatistika horri buruzko ihardunean aritzeko erakuntza; II Idazpuruak hori du gai.
- c) Kondaira-Lurraldeetako eta Autonomia-Elkartearen mugarteango gainontzeko Herri-Izaikietako estatistikak; gai hori III Idazpuruak darabil.

2.– I IDAZPURUA

I Idazpuruak, lehen esan denez eta Autonomia-Estatutoaren 10.37 atalak agintzen duenez, Euskadiko Autonomia-Elkarteak bere bakarreango agintepide duen Estatistikaren araupeketa du xede.

Hala ere, Idazpuru honek ez du gai honekikoan Autonomia-Elkartearen ihardun osoa hartzen. Izan ere, Lege hau Estatistikaren Euskal Egitamua ontzat eman dezanaren bidez osatuko da, honek Autonomia-Elkartearen estatistika-lana araupetzeko bide izan, eta indarrean egon dedin aldiko estatistikak eta horrelako beste ekintzapide batzuk izan behar bait-ditu barne. Bestalde, lege-arau-pidetza hori Urtean-urteango Estatistika-Egitarauek egiteratuko dute, hoiek Egitamuan oharteman

gabeko beste estatistikak eta baita, hala egokituz gero, eman daitezkeen araudi-bidezko beste araupide batzuk ere jaso ahal izango dituztela.

Nolanahi ere, Idazpuru honetan egiten den araupeketak funtsezko bi helburu lortu nahi ditu:

a) Unean-unean indarrean egon daitezen Egitamu, gainontzeko estatistika edo bestelako ekin-tzapideak direnak direla, Autonomia-Elkartearen Estatistika-iharduna hari egokitu behar zaion egitura-mailako araupidetza iraunkorra jartzea.

b) Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzaren estatistika-alorreango ihardunarentzako esparruak eta helburuak finkatzea eta, hori, horren berarizko erakuntza, hots, arduralaritza-ahalmenaren zedarripena dena dela. Arduralaritzaren alor horretango iharduna ere Arduralaritzari ihardun horrek berebaitan daramatzen eskubideez baliatzeko gaitasuna ematen dion arduralaritza -ahalmena egiteratzea denaz ez dugu ahaztu behar.

Helburu hoiei dagokiela, I Idazpuruak bost Atalburu ditu.

"Orotariko Erabakiak" deritzan Lehenengo Atalburua horrelako arauetz ari da. Horrela, lehenengo atalak Autonomia-Elkarteko Estatistikaren zertazkoaren esparrua du gai, bere berenezko helburu eta agintepidetarako gai horretan duen bakarreango agintearen arauera; 2garren atalak, erabakien mailaren aldetikako araupideak zehazten ditu; 3garren ataleko lehenengo txatalari, estatistikaren alor honetango ihardunaren berarizko oinarriak eta, hoiaren artean, azpimarragarri gisa, estatistika-isilpekotasuna eta ondorioen agirikotasuna sendesteak ematen dio bere berarizko garrantzia; azkenik, 4garren atala, estatistikaren alorrean barne-egokitasunezko eta elkarkidetasunezko arauak izateko Elkarteko Estatistikaren esparruari datxezkon alorretzako, lurraldeentzako, erakundeentzako eta gainontzeko nolanahiko alderdientzako zernolakoak, zehaztapenak, sailkapenak, eta izenak jarri beharraz ari da, Euskal Herriko Autonomia-Estatutoaren 20garren atalean esaten denaren arauera, Nazioarte-mailako Ituneetatik atera dedinaren kaltetan gabe.

Lehenengo Atalburua Erresumaren eta Euskadiko Autonomia-Elkartearen estatistika-alorreango egoeraz ari dela azpimarratzea interesgarri egiten da: lehenengoa erresuma-mailako helburuetarako Estatistikaren alorreango bakarreango agintearen jabe da, eta bigarrenak, berriz, bere berenezko helburu eta agintepidetarako Estadistika-alorreango bakarreango agintepidea du. Esandako bi lizaiki hoiek Erresumak eta Autonomia-Elkarreak, alegia bakarreango eta beste inork gabeko agintea dutenez gero, Lege honen 3garren atalaren 2garren txatalak, Autonomia-Elkarreak Erresumarekin Lankidetzak-Ituneak egin ahal izango dituela dio, bere Estatistikarentzat eta erresuma-helburutarakoarentzat batera baliagarri izan daitezen estatistika-lanez biak baliatu ahal izateko. Baina, Itune hauek ez dago ahalbide-maila hutsean hartzerik; estatistika-lanez biak baliatu ahal izateak Itune hori guragarri egiten du, baina, nahi bezain guragarri izanik ere, Legeak ez dauka Ituneek, eduki jakin batekikoan, berebaitan nahi-kidetasuna daramatelakoa eta, beraz, itunea egitera iritsi nahiz egin gabe utzi daitekeelakoa bazter uzterik; bestetik, arauzkotasun hutsezko ikuspegitik begiratuta, ez dauka Lankidetzak-Ituneen esparruak Autonomia-Elkartearen eta Erresumaren agintepideen luze-zabal guztia hartzen ez duelakoa gogoan izan gabe uzterik. Horregatik, Legea, Itune hauek 3garren ataleko 1 txatalako c) letraren bidez egitera iristea guragarri litzatekeela aitortuz, agiango Itune hoiaren nolakoari buruzko elkarkidetasun-oinarria ere tajutuz, aintzin-irizpide honekin bat dator.

Bigarren Atalburua "Estatistika-Ihardunaren Esparrua" deitzen dionaz ari da, lehenengo atalak dioen esparruan sartzen diren moeta honetako estatistikak eta beste ekintza batzuk egiteko bide ematen duela, baina Estatistikako Euskal Egitamuan eta Urtean-urteko Estatistika-Egitarauean sartzen direnak egiteratu beharra zehaztuz.

Horrela, Autonomia-Elkarteak nahitaez Egitamu horretan eta estatistika-Egitarauetan jarritako modu eta neurritan egin beharreko lana zedarritzen du. Estatistikako Euskal Egitamua legeztatu da, berez eta horretazko berarizko inolako aldarrikapenik gabe Erresumaren eta Euskadiko Autonomia-Elkartearen arteko Lankidetzaren Itunaren gai izan daitezkeen estatistikazko ekintza pidez guztiak barne dituela ulertuko denarren. Egitamuak, Jaurilaritzaren Dekretoren onaraz emango diren Urtean-urteango Estatistika-Egitarauen bidez osabideratu eta egiteratuko dira; Jaurilaritzak, horetan, Egitamuan oharreman gabeko beste estatistikak ere sartu ahal izango ditu.

Bestetik, eta baiukera hori ahalik eta egokikorrean egiteko xedez, Legeak, Sailen eta Jaurilaritzaren beraren arioz, Egitamuan eta Egitarauetan sartu gabeko estatistikak egin ahal izatea oharremanen du.

Bukatzeko, Bigarren Atalburuak, estatistika bat Autonomia-Elkarteko Estatistikaren esparruaren zati edo alderdi baten egoera eta/edo bilakakuntza erakusten duen estatistika-jakintza eta teknikabideen berenezko xehapen-saila dela uste izatek abiatzen da. Hori guzti hori, haztaketa eta alderaketak egiteko hasierako aldiak gaintu eta ekonomiazko kontuak, ekonomiazko, gizarte eta biztanlego alorretako erakuskeriak, biztanle-eroldak, usiketak edo beste edonolako ekintzapideak, hien aldiaren-aldikotasunari begiratu gabe, behar hainbateko teknikazko sendotasuna lortu ondoren, azken idazkeran zehazten da. Legezkoen beste alderdi hien kontutan izanik, Legeak, estatistikak Autonomia-Elkarteko estatistika-ihardunaren funtsezko egitura direnez gauzatzeko bide izango diren legeztatu alderdien zehaztapena egiten du.

"Estatistikagintza" deritzan Hirugarren Atalburua argipide-horniketa eta emaitzak araupezeko bi Sailen banatzen da. Atalburu honetan agintzen dena, bakoitzean hartaz ari dedineko estatistika-ekintza araupeku dezan araupeketaren bidez osatu edo egiteratu beharko da.

Argipide-horniketak, dagokien estatistikazko ihardutze-erakundeek Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren esparruari datxezkon gertakariei buruzko xehapenak biltzea du xede. Legeak jakineko estatistika-ekintzetan erabiltzeko behar diren argipideez gainera xehapen-biltegiak eratzeko eta beste estatistika edo horrelako beste ekintza batzuen oinarritarako argipideak biltzeko erabat oharremanen duela azpimarragarria da.

Beste alde batetik, emaitzek estatistikak osatzen dituzten aleen zermugapena eta zehaztapena egiten dute. Zera nabarmenarazi behar da: Egitamuan, Egitarauetan eta Jaurilaritzak ofizialtzat aldarrikatu ditzen besteetango emaitzak agirikoak eta, Euskadiko Autonomia-Elkarteak hien ezartzeko ahalmena izan dezaneko harremanetan eta legeztatu egoeratan, ondorio hien Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarri daitezkeen unetik, alde horretatikako berarizko aldarrikapenik egin gabe, nahitaez erabiltzekoak izango dira.

Laugarren Atalburua "Estatistika-Isilpekotasunaz" ari da, eta isilpekotasun-behar hori Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzko ihardunean giltzarri gertatzen da eta, hori, Legea ihardun horretan esandako isilpekotasunari Atalburu horretan jarritako modu eta neurritan erabat men egin beharretik abiatzen delako.

Atalburuaren eduki osoa garrantzi haundikoa da, argipideketaren gai diren norbanakoei legeztatu babes haundia ematen zaien aldetik; horretan, estatistika-xehapenak emateak estatistikazkoaz beste ezein esparrutan inolako ondorioz ez duela izango agintzen duen 19.3 atala nabarmen-tzen da.

Estatistikazko isilpekotasun-beharrek bere babespeko xehapenak zabaltzea edo inori eskuratzeta, eta xehapen hien ezagutzean oinarrituz jokatzea galerazen du, Legeak berariz adierazten dituenetan salbu, eta Erakunde-arteke behartze-indarra ezezik, norbanakoen eta ihardutze

erakundeen arterakoa ere ba du. Hala ere, hori, argipideek biltzerakoan zeukaten zertarakoaz bestelako estatistika-ekintzetarako erabiltzearen kaltetan gabe dela ulertzen da, hoietan eskuhartu dezatenak ere estatistika-isilpekotasunaren menpe gelditzen direla.

Betebehar hau hausteak egindako oker eta kalteen ordaina ematezko erantzunbeharra ekarriko du, Zigor-Epaibidetara jotzearen, herrilariaren eta gainontzeko herri-langileen zentzapiderako eta V Atalburuak dioen zigortze-ahalmena izatearen kaltetan gabe. Gainera, horrek ez du isilpekotasun-beharra indargabetzen, hori hautsi izanagatik horren babespeko xehapenak ezagutu ditzatenek ere isilpekotasun-behar horretara behartuta dauden gainontzekoentzat jarritako neurri eta modu berean bete beharko bait-dute.

Bukatzeko, Boskarren Atalburuak "Zigor-Jaurpideak" araupetzen ditu, birrauspenak, gezurrezko argipideak edo funtsean zatikako direnak ematea, xehapenak eman beharra ez betetzea, estatistikazko isilpekotasun-beharraren hauspena eta estatistikako langileen nortasuna gezurretan hartzea gogor bai gogor zigortuz.

3.– II IDAZPURUA

II Idazpuruak Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzkoetan aritu daitezkeen ihardutze-sail eta Izaikiak ditu gai. Elkartearen berenezko Arduralaritzak Nagusi eta Erakundegoren-mailakoez gainera, Foru-Diputazioak ere aritu ahal izango dira eta bai, taldean nahiz banaka, Udalak ere; hoiere ihardun hori, erakundetzan hoiegandik bereizitako Izaiki den Autonomia-Elkartearena denez gero, haiei hala dagokionean bere araupidetzak berenezkotzat izendatu eta III Idazpuruaren gai den estatistika-alorreko agintepideari dagozkionetan egiteratu dezaketenarekin ezin nahastu daitekeela.

Estatistika Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzak osoaren garrantzi bereziko gauzazko baliapide denez, hari buruzko iharduna eraz eta osoan egin behar da. Horregatik, Lege honen alde honetatikako irizpidearen muina, arduralaritzak-eremu ezberdinek batean iharduteko bide ematezko ihardun egokikor eta askarreko taiukera finkatzean datza.

Izan ere, Legeak, lehenengo eta behin, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" sortarazten du, Autonomia-Elkarteko Arduralaritzazko Ihardutze-Sail Burujabe, horrek izango duen Erakundegoren-mailako Izaikiei dagokien burujabetasuna estatistika-ihardunean beharrezkoak diren aldekoikeriarik ezaren eta berarizkotasunaren onerako izan dedin. "Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" delakoa Ekonomia eta Herriogasun-Sailari atxikita gelditzen da, eratxikipen hori Dekretok aldatu daitekeela.

Bainan, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" delakoa ez da estatistika-alorrean gaitasunik duen Izaiki bakarra. Jaurlaritzako Sailek eta, esandako neurritan, Foru-Diputazioek eta Udalek ere, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzkoan ere ihardun ahal izango dute; horretarako, Legeak, bere estatistikaren alorreango iharduna arduralaritzazkotik argi eta garbi bereizi eta, bide batez, ihardutze-sail hoietan aritu daitezkeen estatistika-lanari teknika-zko gaikuntza berezia suzatu dezan berarizko estatistika-sail bat berebaitan eratu dezatenaren baldintza bakarra jartzen du. Horrela, unean-unean eratuta egon daitezkeen berarizko estatistikako ihardutze-sail hoiek izango dira "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-rekin egintza-mailako gaitasuna izango duen ihardutze-erapidetza izango den Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetzan sartuko direnak. Legeak "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-rentzat gordetzen ditu Egitamuketa eta Arauzkotze-ihardunak, eta Ekoizte-iharduna banatu egiten du, honako xede hauekin: alde batetik, Erakundearen estadistika-alorreango agintea indartzea, elkarren kideko emaitza alderagarriak lortzeko nahitaezko baldintza denez eta, bestetik, Euskadiko Autonomia-Elkarteko estatistikagintzan eskuhartu nahi dezatenen lana erraztea.

Bainan Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetza ez da ihardutze-maila horrekin agortzen, Legeak bi ihardutze-sail sortarazten bait-ditu, "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística" eta "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística" alegia, lehenengoa herri-Arduralaritzza bereziek, hots, autonomiazkoak, foruzkoak eta tokikoak eskuhartu dezateneko ihardutze-saila eta, bigarrena, estatistika-argipideen sortzaileen eta baliatzaileen arteko harremanetarako ihardutze-saila. Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetzan aholkularitza-mailan sartuko diren ihardutze-sail hoiek ez dakarte arduralaritzazko azpiegitura berria sortarazterik, Legeak dioenez, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k jarriko bait-ditu, bere diruegitamuen pentzutan, Kontseiluak eta Batzordeak behar bezala ihardutzeko behar ditzaten baliapideak.

Halaber, zera azpimarratu behar da: Legeak, estatistikak arduralaritzza-xehapenetatik abiatuta egitea indartu beharreko bidetzat jotzen duela. Azken baten, herri-Arduralaritzak bere ihardutze-erak berritzeko egin ditzan ahaleginei ahalik eta etekinik haundiena ateratzea nahi da, eraentzarako eta estatistikagintzarako batera balio eta, ahal den neurrian arduralaritzapekoei argipideak birritan eskatzeari ihes egiteko eran.

Esandako hoiaren arauera, II Idazpuruak bost atalburu ditu. I Atalburuak Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzkoetan ari diren ihardutze-sailak eta Izaikiak zermugatzten ditu. II Atalburuan "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ren sorpena, agintepideak eta beste zernolako batzuk araupetzen dira. III Atalburuak, Jaurilaritzako Sailek eta bere Erakundegoren-mailako Izaikiek alor honetan dituzten agintepideak zehazten ditu. Eta, bukatzeko, IV eta V Atalburuek "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística" eta "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística" dituzte gai.

4.– III IDAZPURUA

III Idazpuruak, Kondaira-Lurraldeetako estatistikak eta Erresumako nahiz Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzza Nagusiko edo Erakundegoren-mailakoez bestekoak izan eta Autonomia-Elkartearen mugartean daudenenak ditu gai.

Kondaira-Lurraldeei dagozkienetan, Legea, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 9garren atalak dioenetik abiatzen da. Gainontzeko Herri-Erakundeei buruzkoan Legea, hala gertatuz gero, hoiaren estatistiken berarizko araupidetzetatik abiatzen da.

Izaiki hoiaren estadistikek 36garren atalean oharmandako araupideak izan behar dituzte jaurpide, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikarekin teknikaren aldetik antolakidetu behar dira, eta "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ri ezagutarazi behar zaizkio, hori guzti hori horren estatistika-ihardunaz ahalik eta ondoen baliatzeko xedez.

5.– BESTE ERABAKI BATZUK

Jaurilaritzak zigorren zenbatekoa unean-uneari egokitzeari buruzko Erabaki Gehigarri Bakarra, diruaren balioak gaudeneko ekonomia-eremuan dituen aldakuntzen artezko ondorioa dugu.

Aldibaterako Erabakietako Lehenengoak eta Bigarrenak, lehengo egoera Lege honetan agintzen denari egokitzera jotzen dute. "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" sortzeak dakarren erakuntza-aldaketaren berebaitango agiango korapilotsua dela eta, horren iharduna noiz hasiko den erabakitzeko eta hori gertatu dedin ekonomia-urteko diruegitamua onartzeko

eskua ematen zaio Jaurlaritzari, diruegitamu hori aurrez jarritako irizpideen arauera egin beharko denarren.

Gainontzeko Aldibaterako Erabakiek Estatistikako Euskal Erapidetzaren Lege-Egitasmoa gertatzeko eta Batzordearen eta Kontseiluaren barne Araudia egiteko eta onartzeko gehieneko epeak finkatzen dituzte.

I IDAZPURUA

ESTATISTIKA-ARAUPEKETA

LEHENENGO ATALBURUA

OROTARIKO AGINDUAK

Lehenengo Atala.– Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren esparrua.

1.– Ekonomia, gizarte eta biztanle-egoera eta bilakakuntza eta, orohar, Autonomia-Elkarte horri emandako egiteko eta agintepideei datxekien edozein gai izango du bere Estatistika-esparru Euskal Herriko Autonomia-Elkarteak.

2.– Beti ere, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzko iharduna izen onerako eta norbere eta familiaren barnekoitasunerako eskubideari buruz unean-unean indarrean egon daitezkeen legegideak beteaz egingo da.

2garren Atala.– Araupidetza.

1.– Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikak Lege hau, Elkartek eman ditzan gainontzeko Legeak eta, hoiien aurkako izan ez daitezenean, haiek osabideratzeko eta/edo egiteratzeko eman daitezkeen araudi-bidezko erabakiak izango ditu jaurpide.

2.– Oraingo honetan berariz horretarako gordetako alderdiak Legez araupetuko dira.

3.– Lege honetan besterik erabaki dedinaren kaltetan gabe, 1 txatalaren gai diren araupideen onarpena Jaurlaritzak egin beharrekoa izango da, Jaurlaritzaren Legeren edo Dekretoren baten bidez "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" hari atxikita egon dedineko Saileko Sailburuari edo bertako Artezkari Nagusiari berariz eman bazaie salbu.

4.– Aurreko txataletan esandako araurik ezean, Euskadiko Autonomia-Elkarteak emandako Arduralaritza-Legeen alorreko orotarikoak izango dira jaurpide.

5.– Erresumako Legeak, aurreko txatalek gai duten Euskadiko Autonomia-Elkarteko araupeketaren ordezkoko gisa erabiliko dira.

3garren Atala.– Estatistika-iharduna.

1.– Euskadiko Autonomia-Elkartean Estatistikari buruzko iharduna honako irizpide hauei atxikiko zaie:

a) Estatistika-isilpekotasunari, egitasunari eta teknika-zehaztasunari.

b) Eginkortasunari.

c) Aurreko atalean esandako araupeketaren arauerako barne-egokitasunari, eta atal honetako 2 txatalean ohartemandako Lankidetza-Ituneek jarri ditzaten moduetango besteekiko egokitasunari.

d) Norbere estatistikak eta beste Arduralaritza batzuenak, batipat Europako Ekonomia-Elkartearenak, erkatu ahal izateko bide izan dedin zer-izan, zermugapen, sailkapen, izen eta ezagukarierango kidetasunari.

e) Ondorioen agirikotasunari.

2.– Lehenengo atalean aipatzen den Euskadiko Autonomia-Elkartearen Estatistikari buruzko iharduna Lege honetako II Idazpuruan esandako Estatistika-Erakuntzaren bidezkoa edo herri-zaikiekin nahiz norbanakoekin egindako hitzarmen edo ituneen bidezkoa izango da. Bereziki, Erresumaren eta Autonomia-Elkartearen artean Lankidetza-Ituneak egin ahal izango dira eta, hoiek, bakoitzaren beharretarako balio dezaten estadistikez biek baliatu ahal izateko.

4garren Atala.– Arauzkotzea.

Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari dagozkionetarako, lehenengo atalean aipatzen den esparruari datxezkon alor, lurralde, erakunde eta gainontzeko nolanahiko alderdientzako zer-nolakoak, zehaztapenak, sailkapenak, izenak eta ezagukariak nahitaez erabili beharrekoak izango dira, ezarri ditzaten araudi-manuen arauera.

BIGARREN ATALBURUA

ESTATISTIKA-IHARDUNAREN ESPARRUA

5karren Atala.– Estatistikak.

1.– Estadistikek, hoiien aldian-aldikotasuna dena dela, ekonomiazko kontuzkoak, ekonomia, gizarte eta biztanlego-erakuskarizkoak, biztanle-erroldezkoak, usiketa-bidezkoak edo beste nolanahikoak izan ahal izango dute.

2.– Estatistikak estatistika-xehapenetatik eta arduralaritza-xehapenetatik abiatuta tajutu daitezke. Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetzak bere ihardunean eta estadistiketan ez beste ezertan erabiltzeko lortutakoak dira estatistika-xehapenak.

Arduralaritza-lanen edo argipide-bilketarako berarizko ekintzen ondorioz arduralaritzan erabiltzeko lortutakoak dira arduralaritza-xehapenak.

3.– Estatistikako Euskal Egitamuan eta Urtean-urteko Estatistika-Egitarauetan esaten diren estatistikak eta moeta horretako beste ekintzak nahitaez egiteratuko dira.

6garren Atala.– Estatistikako Euskal Egitamua.

1.– Estatistikako Euskal Egitamua, Euskadiko Autonomia-Elkartearen aldi bateko estatistika-ekintza antolatzeke egiterapidea da.

2.– Egitamuak, indarrean dirauen artean egin beharreko estatistika eta horrelako beste ekintzak izango ditu barne. Erresumaren eta Euskadiko Autonomia-Elkartearen arteko Lankidetza-Ituneen gai izan daitezen estatistika-ekintza guztiak Egitamuan sartuta daudela joko da, horretazko berarizko adierazpenen beharrik gabe.

3.– Estatistikako Euskal Egitamuak bertan jarri dedin indarraldia izango du, eta jarri ezean, lau urtekoa.

4.– Estatistikako Euskal Egitamua Legez onartuko da.

5.– Jaurlaritzak onartu dezan Estatistikako Euskal Egitamuaren egitasmoaren egiterapena honako arau hauei atxikiko zaie:

a) "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística"-ko kideek egindako egitamuak oinarri dituela Egitamuaren aintzin-egitasmoa tajutzea "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ri dagokio.

b) Lege honen 34garren eta 38garren ataletan jartzen diren modutan eskuhartuko dute tajutze-lan horretan "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística"-k eta Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikako Euskal Kontseiluak.

c) Euskal Estatistika-Batzordean ordezkariarik ez duten beste ihardutze-sail eta lzaiki batzuk ere eskuhartu ahal izango dute, Euskal Estatistika-Erakundearen arioz, Egitamua tajutzen.

d) Egitamuaren aintzin-Egitasmoa, egon daitezen aholkularitza-erizpenekin batean, Erakundea hari atxikita egon dedineko Saileko Sailburuari eramango zaio, Jaurlaritzari Lege-Egitasmo gisa onartu ditzan aurkezteko.

7garren Atala.– Urtean-urteko Estatistika-Egitarauak.

1.– Urtean-urteko Estatistika-Egitarauak ditu Euskal Estatistika-Egitamuak indarrean dirauen artean osabideratzeko eta gauzatzeko egiterapideak. Jaurlaritzak, berari aitortzen zaizkion egiteko eta agintepideei buruzkoak izan eta Egitamuan oharteman gabeko beste estatistika batzuk ere sartu ahal izango ditu haietan.

2.– Urtean-urteko Estatistika-Egitarauaren indarraldiak egutegi-urte bat hartzen du. Hala ere, eta Urteko Estatistika-Egitarau berria ontzat eman ez dedin artean, hurrengo urterako luzatutakotzat joko da.

3.– Urtean-urteko Estatistika-Egitarauak Jaurlaritzaren Dekretoz onartuko dira, 6garren atalaren 5karren txatalean jarritako arauak beteaz.

4.– Urtean-urteko Estatistika-Egitarau bakoitzak estadistika-egiketen eta honelako beste ekin-tzen zerrenda izango du berebaitan, hoietako bakoitzari buruz honako hauek gutxienez zehaztuz:

– Egiketaren helburua.

– Tokizko eremua.

– Aldian-aldikotasuna.

– Argipideketa-banakoak eta argipide-emaileak.

– Argipideak eman behar zaizkien 26garren ataleko 3 txataleko a) letran aipatutako ihardutze-saila edo ihardutze-sailak.

– Egiketaren aldiak eta ihardutze-egutegia.

– Emaitz nagusiaren eta beste eskuhartzaileen argitalpena barne, aldi bakoitzaren ardura duten ihardutze-sail edo lzaikiak.

– Aldi bakoitzerako aintzin-ohartemandako diruegitamuak.

5.– Urteko estatistika-eragiketek, salbuespen gisa, planeko eranskinean aurreikusitako ezaugarri batzuk aldatu ahal izango dituzte, Euskal Estatistika Batzordeak aldeko txostena eman ondoren.

Aldaketa horiek arrazoituak izan beharko dute, eta ezin izango dituzte eragiketen izaera eta helburuak ukitu.

8garren Atala.– Urtean-urteko Estatistika-Egitamu eta Egitarauetan sartu gabeko estatistikak.

1.– Lege honen 26garren atalak dioen estatistikako berarizko ihardutze-saila izan dezaten Jaurlaritzako Sailek, aitortzen zaizkien egiteko eta agintepideei buruzkoak izan eta Urtean-urteko Estatistika-Egitamuan eta Egitarauetan sartu gabeko estatistikak egin ahal izango dituzte; hoiek Jaurlaritzak onartu beharko ditu, Dekretoz, horretazko teknika-egitasmoa eskuratu eta hogeita hamar eguneko epearen barruan "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k arauz bere erizpena eman ondoren.

2.– Jaurlaritzak berariz aginduta baino ezingo ditu "Euskal Estatistika-Erakundea/ Instituto Vasco de Estadística"-k horrelako estatistikak egin.

3.– Urtean-urteko Estatistika-Egitarauan sartutako estadistikek atal honetan oharmandakoe-kiko lehentasuna izango dute.

HIRUGARREN ATALBURUA

ESTATISTIKAGINTZA

LEHENENGO SAILA

ESTATISTIKA-ARGIPIDEKETA

9garren Atala.– Estatistika-argipideak.

1.– Lege honen 5karren atalean aipatzen diren estatistika edo ardulararitza-xehapenek eta estadistikek eurek osatuko dituzte Sail honen gai diren argipideak.

Argipide hoien zermugapena, estatistika bakoitzarentzako araupidetzan egingo da.

2.– 10garren ataleko 3 txatalaren arauera araubidez zehaztuko dena ere, estatistika-argipide izango da.

10garren Atala.– Argipideak eman beharraren menpekoak.

1.– Hurrengo apartatuetan ezarritakoaren arabera zehazten diren norbanakoek edo entitateek 9. artikuluan aipatzen den informazioa emateko obligazioa daukate, halakorik eskatzen bazaie.

2.– Estatistika bakoitzaren erregulazioak zehaztuko du zer pertsona edo entitate dauden behartuta informazioa ematera, edozein dela ere haien izaera fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pribatua, eta naziotasuna, betiere Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan badute edo izan badute beren bizilekua edo goitza, edo hor kokatuta badaude.

3.– Informazio hori baldin badator familia-intimitaterako eta intimitate pertsonalerako eskubideari buruz dagokion unean indarrean den araudiak babestutako datuetatik, honako lege-testu hauetara egokitu beharko dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena, eta gainerako araudi aplikagarria. Nolanahi ere, datu horiek eskatuko dira beti interes orokorreko arrazoiengatik, estatistika-eragiketen helburuei dagokienez

proportzionaltasun-irizpideekin, eta lortutako informazioen anonimotasuna gordetzeko beharrezkoak diren bermeekin.

4.– Informatzaileen erantzun-karga murrizteko, Euskal Estatistika Erakundeak eta maila operatiboan estatistika-erakundeko kide diren gainerakoek eskubidea izango dute administrazio-erregistro eta -fitxategi guztietan dauden datuak eskatzeko eta horiek atzerapenik gabe eta doan eskuratzeko, baita identifikatutako datu pertsonalak ere. Eskubidea izango dute, halaber, datu horiek erabiltzeko eta estatistiketan sartzeko, lege honen lehen tituluko II. kapituluaren araututako estatistika-jardunaren esparruan estatistikak garatzeko, egiteko eta zabaltzeko beharrezkoa den heinean.

Halaber, Estatuko Administrazio orokorraren eta bere sektore publiko instituzionalaren organo eta enteek eskatutako administrazio-datuak bidali beharko dituzte, baita identifikatutako datu pertsonalak ere, estatistika-plan eta -programetako estatistika-eragiketak garatzeko eskatzen direnean.

Euskal Estatistika Erakundeari eta maila operatiboan estatistika-erakundeko kide diren gainerakoei estatistikak egiteko eskuragarri jarri zaizkien administrazio-erregistro eta -fitxategiek metadatuak izango dituzte.

Euskal Estatistika Erakundeak, maila operatiboan estatistika-erakundeko kide diren gainerakoek eta administrazio-erregistro eta -fitxategien titularrek horretarako beharrezkoak diren kooperazio-mekanismoak sortu beharko dituzte.

5.– Dagokion estatistika-eragiketaren erregulazioan ezarritakoarekin bat etorritik, informatzaileztat jotzen diren entitate publiko eta pribatuei baimena ematen zaie estatistika-eragiketen organo hartzaileei interesdunei buruzko datu pertsonalak lagatzeko, haien baimenik gabe, soil-soilik estatistika-eragiketak egiteko helburuz.

11garren Atala.– Argipide-eskeak.

Argipide-eskea artezko eskabidez egingo da. Besteak beste, postaz bidaltzea eta behartuta dagoenari egindako ikustaldia artezkotzat joko dira.

12garren Atala.– Era.

1.– Estatistika bakoitzarentzako araupidetzak besterik badio salbu, argipideak banakako nahiz bateratutako eta sailkatutako nahiz sailkatu gabeko xehapen eran eman daitezela eskatu ahal izango da.

2.– Argipideak ematea idatziz, iman-irarkiz edo beste bide batzuez baliatuta egin ahal izango da, jarri daitezen betebeharrekin.

13garren Atala.– Arau-hauspena.

Argipideak emateko epea bukatu eta haiek esandako neurri eta modutan eman ez badira, egin beharrekoari huts egin zaiola joko da, honetzazko berarizko ezein adierazpenen edo jakinarazpenen beharrik gabe.

14garren Atala.– Okerrak.

1.– 10garren atalean agintzen denez argipideak eman beharraren menpeko guztiak, horretarako gai den ihardutze-sail batek edo lanariren batek eraz eskatu diezazkieten argipideak egiatasunez ematera behartuta daude.

2.– Argipide-emaileak, agian egindako hutsak zuzentzera eta, zuzenketa egin ondoren, argipideak hasieran bezalaxe eskuratzera behartuta daude.

3.– Egindako zuzenketek, hala egokituz gero, dagozkien emaitzak araudi-bidez zehaztu dedin moduan zuzendu beharra dakarte.

15garren Atala.– Estatistika-lanarien nolakoa.

1.– Lege honen 26garren atalaren 3 txataleko a) letrak esaten dituen Estatistika-Erapidetzako edozein ihardutze-sail edo lizaikiri zerbitzu egin diezaioten lanariak estatistika-lanari izango dira, hoiien maila eta zerbitzuaren iturri den legezko atxikipena direnak direla, txatal honetan jartzen diren baldintzak bete daitezenaren baldintzapean.

Nolanahi ere, estatistika-lanari direnezko ihardunari ekin baino lehen, Lege honetan eta une bakoitzean indarrean egon dedin estadistika-araupidetzari atxikiz ihardungo duenaren eta, berriz, bere ihardunagatik ezagutu ditzan argibide guztiei buruz estatistikaren isilpekotasunari eutsiko diotenaren zina edo agindua egin beharko dute. Zin edo agindu hori egiteko era araudi-bidez zehaztuko da.

Aurreko baldintza bete ondoren, estatistika-lanaritasuna "Euskal Estatistika-Erakundea/ Instituto Vasco de Estadística"-ren eraentzapean egon eta araudi-bidez araupetutako eran ihardungo duen Errolde Nagusi baten sartuz lortuko da.

2.– Argipideak eman behar dituztenekiko, estatistika-ihardunean ari daitezen lanariak Aginte-Eskudun izango dira. Argipideak lortzeko iharduna 3garren ataleko 2 txatalean esandako hitzarmen edo ituneak egitearen bidezkoa izatea gerta dedinean, hitzarmenok eta ituneok berariz diotena egingo da. Lanari hoiek Aginte-Eskudun direnaren herritarrekiko egiaztapena araudi-bidez araupetuko da.

16garren Atala.– Argipideak gordetzea.

1.– Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetzak, bere ihardunean, lortutako argipideak gorde eta zaindu egingo ditu; hoiek estatistika-isilpekoak izaten jarraituko dute, Lege honek esandako neurri eta modutan, hala egokituz gero haien ondorioak ontzat emanda egon daitezenarren.

2.– Argipideak gorde behar horrek ez dakar nahitaez argipide hoiien jatorrizko irozkaiak gorde beharrik, hoiien edukiaren funtsa informatikazko nahiz bestelako irozkaietan erasota gelditu dedinaren baldintzapean.

3.– Hala ere, Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística-k txostena egin ondoren, gordetzea beharrezkotzat jotzen ez deneko argipidetza deuseztu ahal izango da, bere irozkaiak dena dela.

2GARREN SAILA

EMAITZAK

17garren Atala.– Zernolakoak.

1.– Euskal Estatistika-Egitamuetako eta Urtean-urteko Estatistika-Egitaraueko estatistikak ofizialak dira.

2.– Horretzaz gainera, Jaurilaritzak, Lege honen 8garren atalean oharmandako ezein estatistika ofizialtzat jo ahal izango du.

3.– Estatistika ofizialen emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarri daitezen unetik bertatik, emaitz hoiek Euskadiko Autonomia-Elkarteak hoietzaz balia-arazteko agintepidea izan dezaneko lege-alorreko harreman eta egoeretan nahitaez erabili beharrekoak izango dira.

18garren Atala.– Zabalkundea eta Hedapena.

1.– Aurreko atalean agindutakoaren arauerako estatistika ofizialen emaitzak beti agirikoak izango dira, eta doakien guztiek eskatu eta eskuratu ahal izango dituzte hioen xehapenak.

2.– Nolanahi ere, emaitz hoiek irarrita argitaratu, eta irarpen hoiek jendearen esku egon beharko dute, erosi edo ikusi ditzan. Irarritako aleen prezioak araudi-bidez edo ardulararitza-erabakiz jarriko dira, merkatuaren eta herri eta gizarte-baliagarritasunaren aldetatikako irizpideak kontutan izanik, azkeneko hauen eta ustezko erosleen mailen eretzearan prezio bereziak jarri daitezkeela.

3.– Eman daitezen emaitz hoiei buruzko egiaztagiriegatik, lege jarri daitezen arielak ordainduko dira.

4.– Eskatu ditzatenei argitaratutakoez besteko estatistika-lanak ere eskuratu ahal izango zaizkie, ordaindu ondoren, teknikaren aldetikako behar adina segurantz izan eta estatistika-isilpekotasuna hausten ez badute.

LAUGARREN ATALBURUA

ESTATISTIKAKO ISILPEKOTASUN-BEHARRA

19garren Atala.– Zertazkoa.

1.– Estatistikak isilpean gorde beharrak, bere babespeko xehapenak zabaltzea edo inori eskuratzeara eta xehapen hoiek ezagutzeaz baliatuz aritzea debekatzen du.

2.– Estatistikako isilpekotasun-beharraren babespeko xehapenak ez dituzte estatistikak egiteko edo Lege honetan oharmandako horrelatsuko ihardunetarako erabili behar dituztenek baizik ezagutu eta erabili ahal izango eta, hori, horretarako eta ez beste ezertarako.

3.– Estatistika-xehapenak emateak ez du estatistikaren alorraz besteko eremutan inolako eraginik izango.

20garren Atala.– Babespeko xehapenak.

1.– Estatistikako isilpekotasun-beharrak honako estatistika-xehapen hauek babesten ditu:

a) Gizabanako zehatzei dagozkientzat ezagutu daitezkeen xehapenak, jakin-jakinekoak eta guztientzat ezagun direnak salbu. Estatistika-isilpekotasunaren menpe egon ez daitezzenek jadanik zabaldutako edo argitaratutako xehapenak azken hoietakoak direla joko da. Hala ere, xehapenak Herri-lzaikien ardulararitza-ihardunari dagozkien bidetan aurkeztu izan hutsa ez da xehapen hoiek jakinekoak eta guztientzat ezagunak direla jotzeko zio izango.

b) Berarizko arauen babespean isilpeko izan daitezen xehapenak.

2.– Estatistikako isilpekotasun-beharrak, estatistiketarako emandako ardulararitza-xehapenak estatistika-xehapenak bezalaxe babesten ditu.

3.– Nolanahi ere, ez dute estatistika-sekretuaren betebeharraren babesik izango fitxategi-direktorioek; hau da, ez dira babespekoak izango establezimendu, enpresa, ustiategi edo bestelako enteent enumerazioak eta bakoitzaren kokalekua, izena, jarduera, helbide elektroniko korporatiboa, telefono korporatiboa eta sailkapenak egiteko tamaina- adierazlea.

4.– "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k bere esku izan ditzan Euskal Estatistika-Egitamuan eta Urtean-urteko Estatistika-Egitarauetan sartutako estadistikei buruzko estatistika-isilpekoak izan eta ihardutze-sail hoiek bere estatistika-lanetarako behar dituzten argipideak eskuratuko dizkie Lege honen 26garren ataleko 3 txataleko a) letraren gai diren Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetza gainontzeko ihardutze-sailei.

5.– Estatistikako ihardutze-sail hoiek, eurek egin eta 26garren ataleko 3 txataleko a) letraren gai diren Estatistika-Erapidetza osatzen dutenei, hoiek bere estatistika-ihardunerako beharrezkoak izan eta bere esku izan ditzaten 8garren atalaren gai diren estadistikei buruzko estatistika-isilpeko argipideak eskuratuko dizkiete.

6.– Atal honetako 4 eta 5 txatalen gai den argipide-emate hori horren zertarakoak onar dezan adina bilduta eta araudi-bidez jarri daitezen modu eta neurritan egingo da. Argipide hoiek hartzen dituenak eta ez beste inork erabiltzekoak izango dira, eta honek ezingo dizkio beste inori eman, ez ihardutze-mailan Estatistika-Erapidetza osatzen dutenei eurei ere.

7.– 10garren atalaren babespean lortutako argipideen nondikakoari izkutuan eutsi ahal izateko, berri-emaleak ezagutzera ematezko xehapenak gainontzeko xehapenetatik bereizirik erabiliko eta jasoko dira.

Oroharki, bi xehapen-multzook elkarri bete-betean lotzea galerazteko teknikabide egokiak erabiliko dira.

21garren Atala.– Indarraldia.

1.– Horretazko berarizko adierazpenik egin beharrik gabe, horren babespeko argipideak eman daitezen unetik bertatik bete-betean indarrean jarriko den estatistikaren isilpekotasunari eutsi beharrak ehun urteko indarraldia izango du.

2.– Epe hori bukatu ondoren, aurreko zatian esandako estatistika-isilpekotasunaren babespeko xehapenak ez zaizkie hoiek ikuskatzeko eta aztertzeko nahiaren bidezkotasuna egiaztatu dezate-nei baino eskuratuko, banan-bana emandako ardularitza-baimenaren bidez.

3.– Salbuespenez, eta eskatu daitezen argipideak egin zirenetik hirurogei urte bete izanaren baldintzapean, 1 zenbakipekoaren gai den estatistika-isilpekotasunaren babespeko xehapenak hoietaz jendearentzat argitaratutako liburuetarako edo unibertsitateko ikerketa-lanetarako eta ez beste ezertarako baliatzeko bidezko nahia egiaztatu dezatenei eskuratu ahal izango zaizkie, batera gerta daitezen zudu berezien haztapena egin dezan banakako biderapenez emandako ardularitza-baimenaren bidez.

4.– Argipide-emaleak, ardularitzak estatistika-isilpekotasunari eutsi diezaioneko eskubidea idatziz egindako berarizko adierazpenaz utzi dezake.

5.– Estatistika-isilpekotasunari eutsi beharraren indarraldiak ez du atal honetan oharremandakoez besteko aldakuntzarik izango.

22garren Atala.– Behartutakoak.

1.– 26garren ataleko 3 txataleko a) letraren gai diren Estatistika-Erapidetza osatzen dutenak eta Lege honen 15karren atalean esandako estatistika-lanariak egongo dira estatistika-isiltasunari eutsi beharraren menpe.

2.– Halaber, lehenago aipatutako ihardutze-sail eta lzaikietatik kanpokoak izan, eta isilpeko xehapenak Lege honetan oharmandako estatistika-ekintzetarako edo estatistikazko beste ekin-tzapide batzuetarako hitzarmen edo itunetan partzuer izanaren ondorioz jakin ditzaten norbanako edo lege-nortasundun guztiak ere isilpekotasun-beharraren menpe gelditzen dira.

3.– Estatistikako isilpeko xehapen hoiek isilpekotasunari buruzko arauak bete ez direlako jakin ditzatenak ere, arau hoiek hoiien menpe dauden gainontzekoentzat jarritako modu eta neurri bere-tan betetzera behartuta gelditzen dira.

4.– Lege honen 20garren atalean oharmandako argipideak eman ahal izatea salbu, isil-tasun-behar horrek lege-nortasundun bakoitzeko gainontzeko ihardutze-sail edo norbanako guztiei buruzko indarra izango du.

23garren Atala.– Hauspenak.

Estatistikako isilpekotasun-beharrarekiko hauspenak, egindako okerren eta kalteen ordaina lege-antolaketan jarritako modu eta neurrietan ematezko erantzukizuna ekarriko du, Zigor-Epai-laritzaren, herri-lanari eta gainontzeko herri-langileekiko zentzatzeko ahalmenaren, eta Idazpuru honetako Boskarren Atalburuak dioen zigortze-ahalmenaren kaltetan gabekoa dela.

BOSKARREN ATALBURUA

ZIGOR-JAURPIDIAK

24garren Atala.– Arau-hauspenak.

Lege honen I Idazpuruan eta hori osatu edo egiteratu dezaten gainontzeko arauetan aginduta-koa ez betetze guztiak, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren alorreko ardularitza-zko hauspenak izango dira.

13garren atalean esaten den argipideak emateari huts egin izanagatik zigorra jarri, horretara behartuta zegoenari eskabideak idatziz erasoz egin zaizkionean baino ez zaio jarriko.

25karren Atala.– Zigorrak.

1.– Aurreko atalean esandako ardularitza-zko hauspen guztiak hamabost mila eta berrogeita hamar mila pezetan arteko isunez zigortuko dira, atal honetan besterik agindu badadi salbu.

2.– Honako hauspen hauek berrogeita hamar mila eta bat eta berrehun eta berrogeita hamar mila pezetan arteko isunez zigortuko dira:

a) 1 txatalean esandakotakoak izan eta hauspenaren aurreko bi urteen barruan egindako baten errepikapen izan daitezenak.

b) Argipiderik ez ematezkoak edo argipideak funtsezko alderdiak izkutatuz ematezkoak.

c) Estatistikako isilpekotasuna haustezkoak, 3garren txatalean sartzen direnetakoak izan ez daitezenean.

3.– Honako hauspen hauek berrehun eta berrogeita hamar mila eta bat eta miloe bat pezetan arteko isunez zigortuko dira:

a) 2 txatalean esandakoetakoak izan, eta hauspenaren aurreko bi urteen barruan egindako baten errepikapen izan daitezzenak.

b) Gezurrezko argipideak ematezkoak.

c) Estatistikako isilpekotasuna ez gordetzezkoa, doakienei, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Herri-Arduralaritzari edo beste norbaiti kalteren bat ekarri diezaiekeen.

4.– Lege honen 15karren atalaren gai den Errolde Nagusian sartu gabe egon eta argipideak ateratzeko estatistika-lanari direla esan dezatenei 250.000 pezetatik miloe batera arteko izuna jarriko zaie, ustez lortu duten irabazia hortik gorakoa izan dedinean salbu, orduan irabazi hori baino gehiago gabeko zigorra jarri ahal izango bait-zaie. Jokabide horretarako akio egin edo agin-
dua eman dezatenei zigor hoietxek jarriko zaizkie.

II IDAZPURUA

EUSKADIKO AUTONOMIA-ELKARTEAREN ESTATISTIKA-ERAPIDETZA

LEHENENGO ATALBURUA

OROTARIKO AGINDUAK

26garren Atala.– Egitura.

1.– Honako hauek egiteratuko dute, Lege honetan oharmandako neurri eta modutan, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzko iharduna:

a) "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k.

b) Berebaitan estatistikarako berarizko ihardutze-sail bat eratuta euki dezaten Jaurlaritzako Sailek.

c) Foru-Diputazioek, baina berebaitan dagokien estatistikarako berarizko ihardutze-saila eratuta euki, eta Euskal Estadistika-Egitamuk dakartzan estatistikak Egitamuk berak edo hori eginbideratu ditzaten Urtean-urteko Estatistika-Egitarauek jarri ditzaten eran bakoitzak bere mugartean egitea bere gain hartzen badute baino ez.

d) Udalek, elkartuta nahiz banaka, baina berebaitan dagokien estatistikako berarizko ihardutze-saila eratuta euki, eta Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari datxekon agintepideak izendatuta badauzkate baino ez.

e) "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística"-k.

f) "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística"-k.

2.– Honako ihardutze-sail eta lizaiki hauek osatzen dute Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetza:

a) "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k.

b) Aurreko txataleko b), c) eta d) letretan esandako estatistikarako berarizko ihardutze-sailek.

c) "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística"-k.

d) "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística"-k.

3.– Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetza osatzen duten ihardutze-sail eta lzaiki hoiek bi mailatan eskuhartzen dute horretan, honela:

a) Ihardutze-mailan: aurreko 2 txataleko a) eta b) letretan ohartemandakoek.

b) Aholkularitza-mailan: aurreko 2 txataleko c) eta d) letretan ohartemandakoek.

4.– Estatistika-Erapidetza horren estatistika-lanarekiko Egitamugintza eta Arauzkotze-ihardunak "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k biltzen ditu, eta Estatistika-gintzakoak Lege honek, Euskal Estatistika-Egitamuaren Legeak eta hoiek eginbideratu ditzan araupidetzak agintzen duten eran banatzen dira.

27garren Atala.– Araupeketa.

"Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ren eta "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística"-ren erakuntza eta iharduna eta orobat "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística"-ri dagozkion eta horrentzat gorde gabeko alderdiak araudibidez araupetzea Jaurlaritzari dagokio, horrek agintepide hori "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" hari atxikita dagoeneko Saileko Sailburuari edo erakunde horri berari eman badiezaio salbu.

26garren ataleko 2 txataleko b) letraren gai diren Jaurlaritzako Sailen, Foru-Diputazioen eta Udalen estatistikako berarizko ihardutze-sailek bere araupidetza bereziak izango dituzte jaurpide, Lege honen 42garren atalak azkenekoentzat agintzen duenaren kaltetan gabe.

BIGARREN ATALBURUA

EUSKAL ESTATISTIKA-ERAKUNDEA/INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA

28garren Atala.– Sortarazpena.

1.– Lege honen bidez "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" sortarazten da, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritzazko Ihardutze-Erakunde Burujabe.

2.– Erakundea Ekonomia eta Herriogasun-Sailari eratxikitzen zaio. Eratxikipen hau Dekretoz aldatu ahal izango da.

29garren Atala.– Agintepideak.

1.– Honako agintepide hoiek egiteratzea dagokio "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ri Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren alorrean:

a) Euskal Estatistika Planean eta urteko estatistika programetan sartutako estatistikei dagokienez:

– Estatistika-jarduera zuzentzea eta koordinatzea.

– Eragiketa bakoitzaren proiektu teknikoa onartzea.

– Lortzen diren estatistika-emaitzak argitaratzea eta zabaltzea, gutxienez, Euskal Estatistika Erakundearen web zerbitzarian, eta, beste organo edo enteren batek parte hartuz gero, hori esplizituki jasotzea.

– Emaitzak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu direla iragartzea.

b) Eskatu dakizkion estatistikak edo estatistika-zatiak egitea.

c) Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari ofiziala izatea estatistikaren arloan, eta EAEko estatistika-erakundea osatzen duten guztien eta estatuko, eskualdeko edo, hala badagokio, nazioarteko estatistika-erakundeen arteko harremanak bideratzea. Horretarako, txosten bat egin beharko du, nahitaez, beste administrazio batzuekin estatistikaren inguruan akordio edo hitzarmen bat sinatu aurretik.

d) 26garren ataleko 2 txataleko b) letran esandako ihardutze-sailetako bakoitzaren eta aurreko txatalean esan gabeko beste ihardutze-erakundeen arteko harremanen eta hoiei emandako argipideen antolakidekuntza. Horretarako, haiek, araudibidez jarriko den eran, harreman hoiek "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ri jakinarazi, eta eman ditzaten argipideen aldaki bat eskuratuko diote.

e) Lege honen lehenengo atalak dioen eremuko argipideei buruz Estatistikako Xehapen-Biltegiaren oinarritzko arauak jartzea, alor horretarako orotariko argipideak biltzea, eta Biltegia jarri eta horri lan eginaraztea.

f) Euskadiko Autonomia-Elkarteko biztanlegoari eta gizarteari, ekonomiazko kontuei eta gizarte-ekonomiazko erakuskariei buruzko bateratutako estatistika-erapidetzak horren lurralde-maila guztietan gertatzea eta hoiei arta egitea.

g) 26garren ataleko 3 txataleko a) letran esandako ihardutze-sail eta izaikiek egin dezaten estatistika-lanaren barne-egokiketa, bateraketa eta antolakidekuntza eta harenak Erresumako edo Erresumatik kanpoko beste estatistika-erakuntzenekin kidekatzeko irizpideak finkatzea, hoiien emaitzak elkarrekin erkatu ahal izateko. Berariz, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k, Estatistika-Erapidetza osatzen dutenek erabili beharreko estatistikako itaun-zerrendak aztertu eta ontzat eman, eta hoiien jendearentzat irekitako Errolde Nagusi bat izango du. Halaber, Euskadiko Autonomia-Elkartean dautzan eta Erresumako Arduralaritza nagusiaren edo iraskunde-mailakoaren osakide ez diren Herri-Arduralaritzetako ihardutze-sailek eta Izaikiek, erabili ditzaten arduralaritzako idazki-ereduen lehen bezala egiaztatutako aldakiak bidaliko dizkiote Erakundeari.

h) Bere nolakoa dela eta agian estatistika-sorburutarako erabili daitezkeen argipideen gintzan eragina izan dezaketen Autonomia-Elkarteko arduralaritza-izapideak tajutzeko eta eraldatzeko bere iritzia ematea, berrikuntza hoiek ahalik eta baliagarrien eginaz Autonomia-Elkarte osoaren eta berariz Erakundearen estatistika -alorreko beharrei erantzuten modu egokian laguntzeko.

i) Euskadiko Autonomia-Elkarteko ihardutze-sail eta Izaikiek erabili behar ditzaten era guztietako Helbide-Bildumak antolatzea eta unean-uneangotzea, haiek bere alorreko Helbide-Bildumak egiten eta unean-uneangotzen eskuhartzera behartuta daudela.

j) Autonomia-Elkarte Osoko Erakundeen eta Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko Harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen Erabaki Gehigarrietako Lehenengoan esaten direnak.

k) Lege honen 15karren atalaren gai diren estatistika-lanarien hezkuntza eta berarizko gaikuntza, estatistika-lanetako ihardutze-erak elkarri kidekatzeko xedez.

l) Bere estatistika-lanari datxezkon Legeen aintzin-egitasmoak eta arduralaritza-erabakien egitasmoak gertatzea, hoiien aldaki bat "Euskal Estatistika-Batzordea/ Comisión Vasca de Estadística"-ri eskuratuz.

m) 26garren atalean aipatzen diren Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetza osatzen duten besteei berariz eman gabekoak.

n) Lege honetako beste manu batzuk ematen dizkietenak.

2.– Euskal Estatistika Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri guztietako udal-errol-den kopien gordetzaile-lana ere egingo du, eta, horretarako, udalerriek administrazio-erregistro horien kopiak bidali beharko dizkiote erregelamendu bidez zehaztutako moduan.

30garren Atala.– Erakuntza.

"Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ren egituraren baitan Artezkaritza Nagusi bat izango da, eta bai Lege hau egiteratzeko arauetan sortarazi daitezen gainontzeko ihardutze-sailak ere.

31garren Atala.– Artezkaritza Nagusia.

1.– Artezkaritza Nagusia du Erakundeak bere goreneko ihardutze-sail. Kargu horretarako Lehendakariak izendatu eta kenduko du, Jaurlaritzak eztabaidatu ondoren, Erakundea hari eratxikita dagoeneko Saileko Sailburuaren saloz.

2.– Honako agintepide hauek izango ditu "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ko Artezkaritza Nagusiak:

- a) Erakundearen epaitegiez kanporako ordezkotza.
- b) Erakundeko eta horren zerbitzu guztietako lanarien burugoa.
- c) Erakundearen iharduna suztatzea, artezteia eta antolakidetzea.
- d) Erakundeari dagozkion eta bertako beste ihardutze-sailen bati eman ez zaizkion guztiak.

3.– Bere ihardunean, erabateko iareitasunaz arituko da Euskadiko Autonomia-Elkarteko estatistika-ihardunari buruzko teknika eta zientziazko alderdi guztietan.

32garren Atala.– Ogasuntza.

1.– Honako dirubide hauek izango ditu "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k:

- a) Berak egindako zerbitzu edo burututako beste ekintzapideegatikako arielen diruak.
- b) Autonomia-Elkarteko Diruegitamu Nagusietan ontzat emandako dirueskuraketak.
- c) Euskadiko Autonomia-Elkartek Erresumarekin edo beste Herri-Izaiki batzuekin egindako Lan-kidetzea-Ituneen ondorioz Erakundeak egindako lanagatik hartu ditzan diru-zenbatekoak.
- d) Egin ditzan argitalpenen prezioa, eta noiz nola dagozkiekeen ogasun eta eskubideetatikako irabaziak.
- e) Herri nahiz norbanako-alorreko erakundeengandik eta norbanakoengandik hartu ditzan diru-laguntzak eta diru-ekurketak.
- f) Une bakoitzean indarrean egon daitezen araupideen arauera dagozkiekeen beste guztiak.

2.– Atal honetan agintzen dena beteaz, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ren Ogasuntzari dagozkion gaiek Euskal Herriko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarraren ekainaren 22ko 12/1983 Legeari eta hori osabideratu edo egiteratu dezaten gainontzeko araei darizkienak izango dituzte jaurpide.

HIRUGARREN ATALBURUA

EUSKO JAURLARITZAKO SAILAK ETA HOIEN ERAKUNDEGOREN MAILAKO IZAIKIAK

33garren Atala.– Agintepideak.

1.– Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikaren alorrean, honako agintepide hauek dagozkie Eusko Jaurlaritzako Sailei:

a) Lege honen 6garren ataleko 5 txataleko a) letrak dioen Sail-mailako Estatistika-Egitamua egitea, honako hauek gutxienez barne daramatzala: Sailarentzat interesgarriak diren estatistikazko egiketa guztien zerrenda; Saila lau urtetik beherakoa izango ez den Egitamuaren indarraldiak diraueno ekin nahi zaien zerrenda zehatza; azkenengo hauen lehentasun-hurrenkera, eta hoiek behar bezala bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren gizakizko eta diruzko baliapideak.

b) "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-rekin Estatistikako Euskal Egitamua eta Urtean-urteko Estatistika-Egitarauak egiten elkarlanean aritzea.

2.– 26garren atalean esandako estatistikako berarizko ihardutze-sailek izan dezaten Sailek, gainera, honako agintepide hauek erabiliko dituzte ihardutze-sail hoiien bidez:

a) Urtean-urteko Estatistika-Egitarauetan sartutako estatistikak edo estatistika-zatiak Egitarau hoiek dioten moduan egitea.

b) Estatistikako Euskal Egitamuan eta Urtean-urteko Estatistika-Egitarauetan sartu gabeko beretzako estatistikak egitea, Lege honen 8garren ataleko 1 txatalean-ohartemandako eran.

c) Atal honen 2garren txataleko a) eta b) letrei darizkien estatistika-ihardunen ondoriozko beste ihardutze-erakunde batzuekingo harremanak, beti ere 29garren ataleko c) eta d) letretan agindutakoa beteaz.

d) Bere agintepeko estatistikak egiteko argipideak lortzea, I Idazpuruko 3 Atalburuaren Lehenengo Sailean esandako modu eta neurrietan.

e) Beren eskumeneko estatistika-emaizta ofizialak beren webguneetan argitaratzea eta zabaltzea, Euskal Estatistika Erakundeari aurrez horien edukiaren berri emanda.

f) Bere alor-eremuko estatistikako Helbide-Bildumak egiten eta unean-uneangotzen eskuhar-tzea, 29garren ataleko i) letran ohartemandakoaren arauera.

g) Bere estatistika-agintepideen alorreko Dekreto-egitasmoak gertatzea eta Aginduak edo bestelako manuak ontzat ematea, "Euskal Estatistika-Batzordea/ Comisión Vasca de Estadística"-ri hoiien aldakiak eskuratuz.

3.– Jaurlaritzak besterik agintzen badu salbu, aurreko txataletan esandako agintepide hoiek bai Sailen bai hoiei eratxikitako erakundegoren-mailako Izaikien estatistikaren alorreko beharrei buruzkoetan erabiliko dira.

LAUGARREN ATALBURUA

EUSKAL ESTATISTIKA-BATZORDEA/COMISIÓN VASCA DE ESTADÍSTICA

34garren Atala.– Sortaraztea eta ahalmenak.

"Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística" sortarazten da, bertan ordezkariak dituzten ihardutze-sail eta Izaikiek Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikan eskuhartu dezateneko ihardutze-sail, eta honako agintepide hauekin:

a) Lege honen 6garren ataleko 5 txataleko b) letran, 33garren ataleko 1 txataleko b) letran eta Azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 9garren atalaren bigarren lerroaldian oharmandakoetarako arauzko erizpena ematea. Erizpen hori "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística"-k arauz eman beharrekoari erantsiko zaio.

b) Urtean-urteko Estatistika-Egitarau bakoitzaren edukiari buruzko arauzko erizpena ematea; erizpen hori urtean-urtean Jaurlaritzari bere onarpen-eske aurkeztu dakion egitarau-saloarekin batera bidaliko da.

c) Aurreko letretan oharmandakoaz bestelako estatistika-alorreko Lege edo Dekreto-egitas-moei buruzko arauzko erizpenak ematea.

d) Jaurlaritzak, Lehendakariak, Sailburuek, Ahalduen Nagusiek edo Erakundeko Artezkari Nagusiak eskatu diezaizkioten estatistika-gaiei buruzko erizpenak ematea.

35karren Atala.– Osatze-modua eta barne-erakuntza.

1.– Euskadiko Autonomia-Elkarteko "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística"-k "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" hari eratxikita egon dedineko Saileko Sailburua izango du Lehendakari, Erakundeko Artezkari Nagusia Lehendakariorde dela. Idazkaritza Erakunde honetako teknikari batek egingo du.

2.– Jaurlaritzako Sail bakoitzak batzordekide bat izango du.

3.– Foru-Diputazio bakoitzak batzordekide bat izango du.

4.– Atal honetako 2 eta 3 txataletan oharmandako batzordekideek gutxienez Artezkari-maila izan, eta hoi ordezkariz izango direneko Jaurlaritzako Sailek eta Foru-Diputazioek izendatuko dituzte. Ihardutze-sail hoiek, gainera, dagokien estatistikako berarizko ihardutze-saila eratuta baldin badaukate, horren arduraduna edo bitariko egitekoa, hots, gutxienez betetzeko gai izan dedin ordezko bana izendatuko dute.

– hala behar izanez gero bere ihardutze-erakundetan estatistika-lana antolaketetza, eta

– bere ihardutze-erakundearen izeneko "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-rekingo teknikazko solaskide izatea.

5.– Udalen izeneko beste bat ere izango da Batzorde honetako kide, dagokion ordezkoa duela, eta biak araudi-bidez agindu dedin eran izendatuta.

6.– Aurreko txataletan esandako Batzordekideez gainera, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ko ihardutze-alor bakoitzeko gorenko arduradunek ere joan ahal izango dira Batzordearen bilkuretara.

36garren Atala.– Eskuarreak.

Batzordeak behar bezala aritzeko behar ditzan eskuarreak

"Euskal Estatistika-Erakundea/ Instituto Vasco de Estadística"-k eskuratuko dizkio bere diruegi-tamuen pentzutan.

BOSKARREN ATALBURUA

EUSKAL ESTATISTIKA-KONTSEILUA / CONSEJO VASCO DE ESTADÍSTICA

37garren Atala.– Sortaraztea.

"Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística" sortarazten da, estatistika-argi-pideen sortzaileen eta baliatzaileen arteko harremanak bermatu ditzan gorenko mailako aholkularitza-sail, hoiek elkar hartzea suztatu, lehenengoen arteko estatistika-ihardunaren antola-kidekuntza egin eta ihardutze-era berdinak erabili daitezela erraztuz.

38garren Atala.– Agintepideak.

1.– "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística"-k honako gai hauek aztertu eta hoiei buruzko iritzia eta aholkuak emango ditu:

a) Euskal Estatistika-Egitamuaaren Egitasmoa. Horretarako, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-k bidali diezaionetik hasi eta bi hilabetetik gorakoa gabeko epearen barruan horri buruzko arauzko erizpena emango du.

b) Unean-unean indarrean egon daitezen Estatistika-isilpeketasunari buruzko legeak erabil-tzeko era zehatza, ulertze-modu ezberdinak gertatu daitezenean.

c) Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistika-Erapidetzak bere estatistika-ihardunean era-bili ditzan aburupideak, zermugapenak, sailkapenak, ezagukariak eta izenak egokitzea eta unean-uneangotzea. Araudi-bidez egin nahi daitezen aldakuntzak egin baino lehen Batzordeak bere erizpena ematea beharrezkoa izango da.

d) 29garren ataleko e) letrak dioen Autonomia-Elkarteko Estatistikako Xehapen-Biltegiaren edu-kia, eta ezein baliatzaile moetak argipide hoiek ardietsi ditzaneko era.

e) Bakoitzak bere agintepideak erabiltzerakoan Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatis-tika-Erapidetzako ihardutze-sailen eta Izaikien artean sortu daitezkeen auziak eta, halaber, Estatistika-Erapidetzak honen eta Euskadiko Autonomia-Elkartetik kanpoko beste estatistikako ihardutze-erakunde batzuen artean sortu daiteztenak.

f) Aurrera ekarri dakizkion estatistika-alorreko egitasmo zehatzak.

g) Jaurlaritzak edo Erakundeak aurrera eraman diezaioten beste ezein arazo, edo Kontseiluki-deek eurek araudi-bidez jarri dedin eran sortarazitakoak.

2.– Nolanahi ere, bere ihardunerako barne-Araudia ontzat ematea Kontseiluari dagokio.

39garren Atala.– Osatze-modua eta barne-erakuntza.

1.– "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística"-k "Euskal Estatistika-Erakun-dea/Instituto Vasco de Estadística" hari eratxikita egon dedineko Jaurlaritzako Saileko Sailburua

izango du Lehendakari, eta Erakundeko Artezkari Nagusia Lehendakariorde, Idazkaritza Erakunde honetako teknikari batek egiten duela.

2.– Honako hauek izango dira Kontseilukide:

a) Eusko Legebiltzarreko hiru ordezkari eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kondaira-Lurraldeetako Biltzar Nagusien ordezkari bana, bakoitza bertako Lehendakariak izendatuta.

b) "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística"-ko batzordekideak eta hoi enordezkoak.

c) Enpresaritza-Bazkunen izeneko hiru eta ordezkotza-indar haundieneko Sindikaritza-Elkar-teen izeneko beste hiru, Lan, Osasunketa eta Gizartesegurantz-Sailburuak haien erakunde en saloz izendatuta.

d) Bere egoitza Euskal Herrian duten Unibertsitateen izeneko hiru, Hezkuntza, Unibertsitate eta lkerketa-Sailburuak bertako Erretoreen saloz izendatuta. Dena dela hoietako biren saloa egitea Euskal Herriko Unibertsitateari dagokio.

e) Euskadiko Autonomia-Elkarteko Merkataritza-Elkar-teen izeneko bat, Industria eta Merkataritza-Sailburuak haien bateango saloz izendatuta.

f) Euskal Bezeroen Baterakundearen izeneko bat, Lan, Osasunketa eta Gizartesegurantz-Sailburuak erakunde horren saloz izendatuta.

g) "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" horri eratxikita egon dedin Saileko Sailburuak bere lanbide eta/edo ikasketa-merezimenduei eta estatistikaren onetan egin dutenari begira izendatu ahal izango dituen hiru kide.

3.– Jaurlaritzak, aurreko txatalean esan gabeko beste ihardutze-sail eta lzaiki batzuen ordezkariak, hamar baino gehiago izango ez direla, Kontseiluan sartzea erabaki ahal izango du.

40garren Atala.– Ihardunbidea eta eskuarteak.

1.– "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística" Osoko Bilkuran eta Egin-tzapide-Batzordearen bidez aritu ahal izango da, bere ihardunerako barne-Araudiak dioenaren arauera.

2.– Kontseiluak Lan-Taldeak eratu ahal izango ditu berebaitan, bakoitzean erabaki dedin Kontseilukideak eta interesgarri eritziz gero Kontseilukideez bestekoak ere Talde hoietako kide direla. Horretarako eratu dedineko egitekoa bukatu dedinean ezabatuko diren lan-talde hoietako Idazkaritza, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ko Artez-kari Nagusiak horretarako izendatutako bertako teknikari batek egingo du.

3.– Kontseiluak bere ahalmena erabiliz eman ditzan teknikazko erizpenez gainera, urtean-urtean bere ihardunari eta estatistika-lanen Euskadiko Autonomia-Elkarteko egoerari eta etorkizunari buruzko argipide-txostena aurkeztu eta Jaurlaritzari eramango zaio, jakitun jarri eta ezagutarazi dezan.

4.– Kontseiluak behar bezala aritzeko behar ditzan eskuarteak Erakundeak jarriko ditu, bere diruegitamuen pentzutari.

III IDAZPURUA

EUSKADIKO AUTONOMIA-ELKARTEAREN MUGARTEKO BESTE HERRI-IZAIKI BATZUEN ESTATISTIKA

41garren Atala.– Kondaira-Lurraldeen Estatistika.

1.– Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailen arteko Harremanen azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 9garren atalean agintzen denez, Foru-Diputazioek Euskal Estatistika-Egitamuan sartuta egon ez eta Lege honek eurei berariz aitortutako helburu eta agintepideetarako estatistikak egin ahal izango dituzte, Idazpuru honetan jartzen diren arauak beteaz.

2.– Estatistika hoiien egiterapena "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ren bidez, Euskadiko Autonomia-Elkarteko Estatistikari buruzko ihardunarekin antolakidetuko da teknikaz.

42garren Atala.– Beste Herri-Izaiki batzuen Estatistika.

Euskadiko Autonomia-Elkartearen mugartean dauden Udalek eta Toki-Erakundeek eta Erresumako Arduralaritzak Nagusikoak edo Erakundegoren-mailakoak izan ez daitezen gainontzeko Herri-Izaikiek bere berenezko araupidetzen arauera egin ditzaketen estatistikak, "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ren bidez egokituko zaizkio, teknikaz, Elkartearen Estatistikarekiko ihardunari. Jaurlaritzak erakunde hoiien estatistika-ihardunerako erakuntzari buruzko arauak jarri ahal izango ditu.

43garren Atala.– Araupidetza.

41garren eta 42garren atalen gai diren Izaikien estadistikek honako arau hauek izango dituzte jaurpide:

a) III Idazpuru honek dakartzanak.

b) I Idazpuruan eta hori araudi-bidez osabideratzekotan egon daitezenak, Idazpuru honen gainontzekoetan agintzen denaren aurkako izan ez daitezenetan.

c) Izaiki hoiien berarizko estadistikei buruzkoak eta Euskadiko Autonomia-Elkarteak emandakoak izan, edo Erresumak emandakoak izan daitezenarren ordezkotzat erabiltzekoak izan daitezenak, aurreko letretan esandako arauen aurkakoak izan ez daitezenetan.

d) Izaikiek eurek bere zernolakoan arauera, bakoitzarentzat jarritako moduan eta aurreko letretan esandakoen aurkakoak ez direla eman ditzatenak. Arau hoiek 41garren eta 42garren atalek dioten antolakidekuntza-irizpidearen arauerakoak izan beharko dute.

44garren Atala.– Argipideak ematea.

1.– 41garren eta 42garren ataletan esandako Izaikiek, bere estadistikei datxezkiela lortutako emaitz guztiak "Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística"-ri jakinarazi beharko dizkiote, lortu eta hurrengo hilabeteko epearen barruan.

2.– Izaiki hoiek, halaber, eskatu diezazkien estatistikari buruzko agiripaper, argipide eta zehaztapidetza guztiak bidali beharko dizkiote Erakundeari. Arau orokor gisa, estatistikako argipideak bere zertarakoak onartu dezan erako bilduman emango dira.

ERABAKI GEHIGARRIA

Bakarra.— Zigorren zenbatekoa egokitzea.

1.— Lege honen 25karren atalean esandako zigorren zenbatekoa diruaren balioa Bezeroarentzako Prezioen Guztizko Erakuskariaren ehunekotango aldartearen arauarako aldakuntzei egokituz birraztertze eskua ematen zaio Jaurlaritzari.

2.— Birrazterpen hori ezingo da ordurarte indarrean egondako zenbatekoa indarrean jarri zene-tik hiru urte gutxienez igaro arte egin.

ALDI BATERAKO ERABAKIAK

Lehenengoa.— Lehendik zegoen estatistikaren egokiketa.

Euskadiko Autonomia-Elkarteak Erresumarekin edo beste Herri-Izaiki batzuekin Lege hau indarrean jarri baino lehen egindako hitzarmen guztiek, egin zirenean zeuden araupideak izango dituzte jaurpide aurrerantzean ere. Hala behar izanez gero, hoiek Estatistikako Euskal Egitamuan sartzeari Jaurlaritzak erabaki dezan modu eta neurritan egingo da.

Bigarrena.— "Euskal Estatistika-Erakundea".

Jaurlaritzak Dekretoz agindu dezanean ekingo zaio bere ihardunari "Euskal Estatistika-Erakun-dea/Instituto Vasco de Estadística".

Hori gerta ez dedin artean, Ekonomia eta Herriogasun-Saileko Estatistika-Artezkariak erabi-liko ditu Erakundearen agintepideak.

"Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística" bere ihardunari ekin dakioneko urterako diruegitamua Jaurlaritzak ontzat emango du, eta hurrengo hamabost egunen barruan Legebiltzarreko Ekonomia, Herriogasun eta Diruegitamu-Batzordeari ezagutaraziko dio. Diruegi-tamu hori, Guztizko Diruegitamuetan sartuta egon eta Lege hau indarrean jarri dedin egunean Estatistika-Artezkariari eratxikita egon daitezen diruatal guztiak, gizakizko eta gauzazko baliapi-deetarakoak barne, Jaurlaritzak erabaki dezan eran bateratuz egingo da.

Hirugarrena.— Estatistikako Euskal Egitamua.

Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari Estatistikako Euskal Egitamuari buruzko Lege-Egitasmo bat aurkeztuko dio, Lege hau indarrean jarri eta urtebetetik gora gabeko epe baten barruan.

Estatistikako Euskal Egitamua onartu ez dedin artean, Jaurlaritzak, Lege honetako 7garren atalean oharmandakoaren arauera erabaki dezan edukiz osabideratuko ditu Urtean-urteko Estatistika-Egitarauak.

Laugarrena.— "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística".

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta gehienezko hiru hilabeteko epearen barruan "Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística" sortaraziko da, eta egun beretik hasitako sei hilabetetik gora gabeko epearen barruan, Jaurlaritzak Batzorde horren ihardunerako Barne-Araudia ontzat emango du.

Boskarrena.— "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística".

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta gehienezko sei hilabeteko epearen barruan "Euskal Estatistika-Kontseilua/Consejo Vasco de Estadística" sortaraziko da, eta egun beretik hasitako urtebetetik gora gabeko epearen barruan Kontseiluak bere ihardunerako Barne-Araudia ontzat emango du.